

Arnaldo Otegi

«EAJk indar erregionalista bilakatzeko apustu egingo du»

Elgoibar, 1958. Ezker abertzaleko kide esanguratsua da. Abertzaletasunak bizi duen krisi politikotik ateratzeko politikari eraginkortzat jotzen du askok. Arnaldo Otegi makila magikorik ez duela dio. Ezkertiar independentisten ekimen bateratua egituratzea lehenesten du blokeo egoera gainditzeko.

Arnaldo Otegi "Estatuak guretzat nahi duen etorkizuna kartzela da" esan zuen orriotan duela lau urte. Loiolako elkarrizketen porrotarekin amaitu zen bake eta normalizazio prozesuaren ondoren, urte bat luze pasa zuen espetxean: "Ez dut bazter-tzen berriz espetxeratua izatea" esan digu orain. Martuteneko kartzelatik ateratzean, blokeo egoera nabarmendu zuen politikagintzan: "Estatuak negozioazio prozesuak ekarriko duen aldaketa saihestu nahi du. Guk herri honetan aldaketarako baldintzak daudela diogu. Estatuak egoera kontrolpean nahi du, eta horretarako, besteak beste, ezker abertzalea neutralizatu behar du".

Kartzelatik ateratzean aipatu zenuen blokeo egoera zertan da uneon?

Termino estrukturaletan blokeo egoerak bere horretan jarraitzen du. Hala ere, azken hilabeteetan blokeo horretatik ateratzeko aukerak antzematen hasi gara.

Blokeo zeri deitzen diozu?

Hamar urte atzera egin behar da berau ulertzeko. Herri honetako sektore zabal batek Lizarra-Garaziko Akordioan egoera politikoa aldatzeko baldintzak sortu zituen -Euskal Herria egituratzeko marko sozio-politiko eta demokratikoa-. Espainiako Estatuak berriz, bere estrategia berregokitu zuen ekimen haren aurrean. Estatuak askapen ekimena blokeo egoerara eraman du. Guk, ezker abertzaleak, aldaketa eragiteko behar diren baldintzak

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

sortzeko kapaz garela diogu, baina oraindik ez dugu aurkitu estrategia eraginkor bat aldaketa hori gauzatzeko. Horretan datza blokeoa.

"Maiatzaren 21eko grebak herritarren aldaketarako nahia erakutsiko du" esan zenuen. Halaxe izan al da?

Grebak aldaketa politiko eta sozialaren aldeko masa kritikoa eta bloke herritarra dagoela erakutsiko zuela esan genuen. Grebarekin aldaketa aldarrikatetik aldaketa gauzatzera pasatzeko indar nahikorik dagoela frogatu da.

"Independentziaren aldeko eta krisi ekonomikoaren aurkako greba deiak nahasten ez dela masa kritikoa handitzen" esan dute batzuek. Grebaren izaera politikoa kritikatu dute alegia.

Greba deitu dutenak euskal sindikatu nagusiak izan dira eta hori errespetatu behar da. Berauek greba termino konkretuetan planteatu dute. Garrantzizkoena da greba bultzatzeko indarra nork egin duen. EAJ berehala desmarkatu zen PSOE eta PPrekin batera. EAKo zati batek, Aralarrek eta ezker abertzaleak sostengatu dute

"Aldaketa eragiteko baldintzak daudela esaten dugu,

baina berau ez da gauzatzen.

Denok badugu zer pentsatua zeregin horretan"

greba. Grebak, independentziaren aldeko greba izan gabe, independentisten sostengu politikoa eduki du. Funtsean, grebak Euskal Herriaren subjektu nazionalen sinesten dugun eragile politiko eta sindikalek egin dugu, independentistek eta ezkertiarrek; hauen artean joera guztiak gaudelarik. Aldaketa politikoa gauzatzeko aski indar dagoela frogatu da, baldin eta indarra antolatzen badugu. Alegia, aldaketa eragiteko baldintzak daudela esaten dugu, baina berau ez da gauzatzen. Denok badugu zer pentsatua zeregin horretan.

Grebaren ondoren ezker abertzalearen urrats berria espero zuten zenbaitek. "Arnaldo Otegi ez du hori gauzatzeko sostengu nahiko bildu orainokoa" esan dute batzuek.

Batzuk ezker abertzalearen egiteko gehiegi pertsonalizatzen dute, gehiegi. Nik makila magiko bat banu bezala jokatzeko espero dute nonbait. Guk urratsak kolektiboki ematen ditugu, ezker abertzaleak ardura berezia dauka blokeo egoera honetatik ateratzeko, ados. Orain kontua da, indar hau hauteskundeetan, lan eremuan, arlo sozialean eta instituzionalean eraginkorra izatea. Marko politiko agortu honetatik marko demokratiko batera pasatzeko antolatu behar dugu. Hori da gure ardura, eta ziur aski beste sektore batzuekin antolatu beharko dugu.

Artean, Gara egunkariak ETArek elkarrizketa dakar gaur (maiatzak 25). Zerbait berri iradoki al dizu?

Gainetik baino ez dut irakurri. Guk elkarriketako bi gauza partekatzen dugu. Bat: ezkerreko euskal independentisten sakabanaketa izugarria dela. Bi: ETA negoziazioaren bigarren saioari ekiteko prest dagoela, Estatuak borondaterik ez duen arren.

ETAk borroka armatua berregokitze-ko prozesuan ari dela dio ere. Jokalekua ez da asko aldatuko, antza.

Trantsizio egoeran gaude eta haue-
tan bakoitzak bere printzipioei eta
estrategiari eusten die. Guk, ezker
abertzaleak, etorkizuna dialektikoki
planteatu nahi dugu, baina presarik
gabe, urrats sendoak eta ondo pen-
tsatuak emanez. Lehenik, ezker
abertzalea kapaz bada Europako
hauteskundeetan (ekainaren 7an)
indartsu agertzeko, eta gero gauza
bada ezkerreko bloke independen-
taren “egitura”ren antolaketan
parte hartzeko, gutxienez elkarla-
nerako baldintzak sortu daitezke.
Bide horretan, nazioarteko komu-
nitatea irtenbide baketsuan eta
demokratikoan inplikaraztea fun-
tsezkoa da. Europako hauteskun-
deak oso garrantzizkoak dira zere-
gin horretan.

**Koiuntura politiko berri baten aurrean
gaude, beraz.**

Bai. Hasteko aukera polita daukagu,
parlamentu eta errealtate trukatu
guztien gainetik, masa kritiko
horretako zati handi batek lehenen-
go urrats bat eman dezan bloke
hori egituratzeko. Gu bigarren urra-
tsa udazkenari begira planteatzen
ari gara. Ezker abertzalea modu
eraginkorrez egituratu nahi dugu,
marko politikoa aldatzeko aldarri-
kapena estrategia eraginkorra bihur-
tzeko. Hiru esparru daude lantzeko:
blokea egituratzea, nazioarteko
komunitatea inplikatzeko eta prozesu
elkarriketatua berrartzea. Hortik
etorriko da desblokeoa.

**Zer iritzi duzu Auzitegi Konstituziona-
lak II-HE (Iniziatiba Internazionalista-
Herrien Elkartasuna) onetsi izanaz.**

Intuizio bat daukat, nazioarteko
instantzia juridikoetatik mezu bat
helarazi zaio Espainiako Estatuari:
“Ezin duzue ezker abertzalearen
aurka *ad hoc* gauzatu duzuen legedi
antiterrorista hori txikle bat bezala



**“Guk II-HE babestuko dugu bere agiriarekin ados gaudelako. Alfonso Sastre
Europara eramateko eta hemengo egoera antidemokratikoa salatzeako aukera
izatea inportantea da, oso inportante da udazkeneko urrats horiei begira”.**

luzatu”. Auzitegi Gorenak Estatuko
sektore iraultzaleen —komunistak
eta sozialistak— ekimen bat debeka-
tu zuen. Alfonso Sastre —intelektual
ezaguna eta militante antifasista—
buru duen kandidatura da eta
Konstituzionalak muga ezarri du:
“Dena ez da posible. Gauza bat da
ezker abertzalea kolpatzea, baina
harago urratsak zaindu behar dira”.

Egiten ari diren gauza batzuk Euro-
pan zalantzan jarriko direla pentsa-
tu dute ziur aski.

Zuek II-HEren alde egin duzue.

Bai. Guk II-HE babestuko dugu
bere agiriarekin ados gaudelako.
Alfonso Sastre Europara eramateko
eta hemengo egoera antidemokrati-
koa salatzeako aukera izatea inpor-

tantea da, oso inportante da udazkeneko urrats horiei begira.

II-HEk indarkeria helburu politikoekin erabiltzea gaitzetsi zuen Auzitegi Konstituzionalean. Batasunak egingo al luke hori, egoerak egoera.

Ezker abertzaleak bere jarrera dauka auzi horri buruz. II-HEk horrela planteatu zuen bere helegitea, eta guk errespetatzen dugu. Baina II-HE ez da ezker abertzalea. Ezker abertzaleak borroka armatuaz duen irakurketari eusten dio. Gure ustez ezinezkoa da ETA erakunde armatua desegitea eta arazoa bide polizialek konpontzea. Guk gaitzespenaz harago doan planteamendua egiten dugu: gatazka –parametro armatueta dagoela ere– negoziazio prozesuaren bidez gainditu behar da.

Europako hauteskunde ondoen koiuntura berria hasiko da, baina hasteko, ezker abertzalea zatituta aurkeztzen da. Edo ez?

Eztabaida hauek antzuak iruditzen zaizkit. Badaude abertzale ezkeriarak ezker abertzale kanpo? Bai, badira. Ukatu ezina da. Nik ez dut copyright-aren inguruan gerra egingo. Ezker abertzalea ezkertiar eta abertzale baino gehiago da ordea. Badu ibilbide eta estrategia politiko historiko bat, badu lan instituzionala, masa borroka, antolakuntza eta konpromisoa ulertzeko era bat. Ezker abertzalean gauza funtsezko bat dago: etxe barruan joko arauak errespetatzea. Aralarrek bere aukera profitatu eta “galdu” zuen, bere burua ezker abertzale kanpo ezarri zuen. Horregatik ez diote ezkeriarrak eta abertzaleak izateari uzten, ni ez naiz inor inori horren karneta emateko. Halere, beraiek erabaki zuten ezker abertzale historikoaren eremutik kanpo jokatzea. Beraz, orain ezin dute termino horrekin beren burua izendatu. Dena den, herriak erabakiko du bozen bitartez zein den ezker abertzalea, zein den nagusia. Herriak horren neurria emango du ekainaren 7an.

Dena den “beste ezker abertzale bat sortzen ari dela” diote batzuek.

Ez nator bat beste ezker abertzale bat sortzen ari den esate horrekin. Batzuk beraien hitzetan “ezker aber-

tzalea” ordezkatuko duen beste proiektu politiko bat sortu nahian dabilta. Aralarrek, esaterako, zeregin horretan gurekiko agresibitate aski erabili du. Ezker abertzalea ordezkatzea zilegia izan daiteke, baina jontxo, ez gu ilegalak garen bitartean. Termino hauetan partida planteatzea desgokia da. Ezker abertzaleak lehian parte hartzeko aukera izango balu eta beste batzuek ez, guk ez genuke sekula gure burua aurkeztuko. Horregatik diot ezker abertzalearen proiektua guk ordezkatzen dugula.

Ezker abertzaleak bloke independentista bat “egitura” dezakeela esan duzu. Aintzane Ezenarrok hori adierazi bai, baina praktikan ez duzuela hori erakusten dio. “Ikusiko dugu hauekin kontatzen dugun” bezalakoak ageri izan dira prentsan, zuen esanetan.

Nik ez daukat hori esan izanaren kontzientzia. Bloke independentistaz hitz egiten ari garenean, sigla batzuek ari gara. Herritarren blokea izan behar da, eta herritar hauek ezker abertzalea eta Aralar bozkartzen dituzte, eta batzuek ere EA eta EAJ. Ahaztu gabe sindikalgintzan ari direnak. Guk ez ditugu anai-arreben arteko kalapitak prentsaren bitartez aldarrikatu nahi. Horren gainetik badago erronka politiko bat: bloke independentista egitura-tzea, EAJtik ezkerreko egongo dena. Horretarako guk guztiekin lan egin nahi dugu. Arazoak ditugu batzuekin eta bestekin, eta haiek ere gurekin. Esaterako, borroka armatua gainditzeko Aralarrek eta Perez Rubalcabak [barne ministroa] planteatzen dutena gauza beretsua da. Hau da, ETAk unilateralki borroka utzi behar du. Gure ustez ordea, hori fase berean eta modu orokorrean gauzatu behar da. Instituzioetan lana egiteko era ere ezberdin ikusten dugu. Halere, herri honek bloke independentista antolatu behar du ezkerretik, eta guk bide horretatik joan nahi dugu.

“EAJk Ibarretxe kendu du eta Lizarra-Garaziko zikloa itxi. EAJ beste motako apustu bat egitera doa”

“Borroka armatua gainditzeko Aralarrek eta Perez Rubalcabak [barne ministroa] planteatzen dutena gauza beretsua da. ETAk unilateralki borroka utzi behar du. Gure ustez ordea, hori fase berean eta modu orokorrean gauzatu behar da”.

Bloke eta poloa sinonimoak al dira?

Hitzez harago joanez, gure herrian sektore ezkeriarrak oso zabala da, inoren patrimonioa ez dena. Guk polo eta bloke esatean, ezkerreko herri abertzalea dagoela diogu, sigla bakarrean ordezkatua ez dena. Bloke hori greba orokorrean agertu da eta berau gauzatzeko alternatibak hiru osagai bildu behar ditu: 1. Aurrerakoa izatea, interklasista izan daitekeena. 2. Eszenatoki demokratiko nazional bat aldarrikatu behar du Estatua inongo konplexurik gabe eraikitze. 3. Blokeak Estatuarekin negoziatzearen alde egon behar du.

Loiolako negoziatioetan ezin izan zenuten akordioa gauzatu...

Baina Loiolako saioaren puzzlearen pieza guztiak mahai gainean daude. Herri honetan egoera politikoa oso argia edo oso iluna ikusteko joera izaten da, baina asko aurreratu genuen. Loiolatik gerora bigarren saio bat izan zen, European egina eta hartan ere asko aurreratu genuen. Soluzioa ukitzearen ginen, baina une horietan mundu guztiari bertigoia sartzen zaio eta gauzak okertu ziren. Herri honek prozesu horren bigarren zatia behar du eta ezker abertzalea urrats sendoak eta ausartak emateko pres-tatu behar dugu.

Gatazka bideratzeko moduak aurkitu ez, eta Patxi Lopez da lehendakaria.

Baina alderdi sozialista Jaurilaritzan dago hauteskundeak trukatu dituelako. Estatuko kultura politikoan oso ohikoa da gezurra, baita haue-tan sinestea ere. Politika gezurrean oinarrituz egin dezaketela pentsatzen badute gaizki ari dira. Eta badakite gezurrean ari direla.





EAJk esan du, zuen ardura dela medio Jaurlaritzatik kanpo dagoela.

Nondik nora gure ardura? EAJ Jaurlaritzatik kanpo geratu izana oso gaizki eramaten ari da. Eta hori akats politikoa da. Politikan mina hartzen baduzu ere, tentuz jokatu behar duzu. EAJri asko nabaritu zaio galarak ekarri dien kaltea. EAJri ahazten zaio gobernua osatu duela azken urtetan gure botoari esker. Ezker abertzaleak hiru aldiz bozkatu du Ibarretxeren alde azken hamar urteotan. Estatutu Berria ere gure botoari esker atera zen. Eta orain hori entzun behar dugu. EAJ erakusten ari da kultura demokratiko eskasa duela. Alderdiek ez daukate gobernuan egoteko jainkoaren agindurik, hori herriak erabakitzen du. Areago, EAJk ezker abertzalea legez kanpo egonda ere gobernatzea onartu zuen. Beraiek onartu dituzte trukatuak ziren hauteskundeak eta orain hori esaten dute. Ibarretxe lehendakaria balitz ere trukatu izango zen. Dirudienaz ahaztu zaie

Dena den, zuek EAJ eta PSEren arteko gobernua espero zenuten. Oraingo gobernu osaketak ez al du ekarri deskolokatze politiko handiegia?

Ez hainbeste. Egoera politikoa estrukturaliki ez da aldatu. Blokeo

egoera aipatu dugu. Estatuak ezker abertzalea neutralizatzeko erabakia hartu zuen. “Bestela hauek kapaz dira aldaketa gauzatzeko” pentsatuko zuen. Jaurlaritzan aldaketa eman da, eta orain, baldintza sozialak aldatzea nahi dute: sinbologia, kulturen eta euskararen politika ere aldatzea posible dela agertu nahi dute. Herri hau narkotizatuta nahi dute eta Estatuaren egituraketan egokitu. Horretan ari dira lehen fasean. Baina ez gaitezen tronpatu, EAJ PSOEn bila joango da epe motzean. Orain arte ez da gertatu Ibarretxe oztopo zelako. Ibarretxe kendu dute, baina nik ez nuke esango

go PSOEk kendu duenik. Ibarretxe etxera joan da planteatu zuen jarrera bere alderdian ez zelako gehiengoak onartua. Orain distantziatxoa markatu dute, baina ez dezagun perspektiba galdu: EAJk eta PSOEk elkar bilatuko dute laster.

Ibarretxe bezalako beste politikari bat ez duzu ikusten EAJn.

Ezinezkoa iruditzen zait. EAJk Ibarretxe kendu du eta Lizarra-Garaziko zikloa itxi. EAJ beste motako apustu bat egitera doa.

Zein?

Ardanza garaira itzultzea. Eta hau-tua legiti-moa da, hori erabakitzen badute guk erresetatuko dugu. Horregatik eraiki behar dugu bloke independentista, besteak beste, EAJn bide hori egiteko aukerarik ez dutenak biltzeko. EAJk beste bide bat egitea logikoa da. Baina ez badu Euskal Estatua eraiki nahi zertarako sartu zen bide

horretan? Ardanzarekin egin zutena egingo dute berriz ere: PSOEn boterea banatu, bere klase interesak defendatu, multinazionalekin eta Espainian eroso egoteko.

Baina gatazka gainditzeko aterabidea Lizarra-Garazi zen, ezta? Edo ezker abertzaleak gatazka gainditzeko aurreakordioa dauka PSOEn?

Ezker abertzaleak ez du uneon bide irekirik PSOEn. Baina guk PSOE, PP edo UPNekin fase politiko honetan hitz egiten badugu herri honetara bakea eta normalizazioa ekartzeko izango da. Guk ez dugu EAJrena bezalako akordiorik egiten. Urkulluk esan du orain EITBko zuzendariaren izendapena EAJk PSOEn aurretik akordatu zutela, baina EAK eta EBK ez zutela ideiarik ere. Horra negoziazio eredia. EAJk, adibidez, Aznar sostengatu zuen Euskaltel-en truk. Badakigu nork kudeatzen duen Euskaltel [Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiak] eta nork ematen dizkion prebendak EAJri. Alegia “Estatuko aurrekontuak babestuko ditugu, baldin eta EITBko zuzendaria gurea bada”. Hori bere eredia da, ez ezker abertzalearena. EAJ urduri dago eta bere mezua aldatu du. Lehen ezker abertzaleak PSOEn itun sekretua omen zuen, orain PSOEk eta PPK dute ituna. Baina horra hor EITBko zuzendaria, eta akordio gehiago ere edukiko dute. EAJk finean indar erregionalista bilakatzeko apustu egingo baitu. ■

www.argia.com/helbidean, elkarriketa bideoan.

Ugarte

Nekazalturismoa

Bebailara.
20159 ASTEASU
Tel.: 943 69 27 22 / 657 72 53 21
e-posta: legarrayolan@yahoo.es
www.caseriougarte.com